Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3950

AGINDUA, 2010eko uztailaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, 2010eko apirilaren 14ko Agindua –Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegu-erregulazioko espedienteearen ondorioz lan-kontratua eten zaien langileen prestakuntzarako 2010eko laguntza ekonomikoen deialdia egiten duena– aldatzen duena.

2010eko apirilaren 26ko EHAAn argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz lan-kontratua eten zaien langileen prestakuntzarako ekitaldi honetarako laguntza ekonomikoen deialdia. Programa horri esleitutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 5.293.723 euro da.

Alabaina, deialdi horren eboluzioak ez dio aurreikusitako iguripenei erantzun. Igarotako aldian, aurreikusitako eskaera kopurua baino gutxiago aurkeztu dira, eta, beraz, aurkeztu direnak estaltzeko beharko diren baliabide ekonomikoak ere ezarritako zenbatekoa baino baxuagoak izango dira.

Bestalde, euskal gizarteak duen krisi-egoerak eta langabezia-tasa altuak Administrazioaren erantzuna eskatzen du. Administrazioaren lehentasunetako bat honako hau da: lan-kontratua amaitu zaien edo enplegu autonomoa galdu duten pertsonen eta orokorrean, oso egoera txarrean dauden eta gaur egun lanpostu bat eskatzen ari diren pertsona guztien laneratzea lortzeko helburua, enplegagarritasun-maila hobean kokatuko dituzten lanera bideratzeko eta berriz bideratzeko eta lanbide-kualifikazioa hobetzeko ekintzen bidez eta pertsona horien okupazioa –norberaren edo besteren kontura- sustatuko duten neurrien bidez. Hori dela-eta, beharrezkoa da langabetuei zuzendutako enplegu- eta prestakuntza-programen eskaintza sendotzea eta haien finantzaketa gehitzea.

Hortaz, kontuan hartuta enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz lan-kontratua eten zaien langileen prestakuntzarako laguntzen deialdian soberakin ekonomikoak aurreikusten direla, eta jakinda deialdiaren amaiera arte eta azken ebazpena arte (abenduan) itxaroten bada soberakin horiek ezin izango direla premia handia duten beste programetan aplikatu,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3950

ORDEN de 29 de julio de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se modifica la Orden de 14 de abril de 2010, por la que se convocan en 2010 ayudas económicas a la formación de los trabajadores y trabajadoras afectados por un expediente de regulación de empleo que conlleve la suspensión del contrato de trabajo, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el BOPV de 26 de abril de 2010 se publicó la convocatoria para este ejercicio de ayudas económicas a la formación de los trabajadores y trabajadoras afectados por un expediente de regulación de empleo que conlleve la suspensión del contrato de trabajo, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Los recursos económicos asignados a este programa fueron de 5.293.723 euros.

Sin embargo, la evolución de esta convocatoria no está respondiendo a las expectativas previstas. El número de solicitudes presentadas es inferior al esperado en este periodo, de manera que los recursos económicos necesarios para su cobertura serán, finalmente, inferiores al importe establecido.

Por otro lado, la situación de crisis y de tasas elevadas de desempleo en la que se encuentra inmersa la sociedad vasca requiere una respuesta de la Administración, situando entre sus prioridades el objetivo de la inserción laboral de todas aquellas personas que se han visto afectadas por la extinción de sus contratos de trabajo o la pérdida de su empleo autónomo y, en general, todas aquellas personas que en la actualidad demandan un puesto de trabajo y se encuentran en una situación extremadamente desfavorable, mediante acciones de orientación y reorientación profesional y mejora de su cualificación profesional, que les sitúe en una mejor posición de empleabilidad, así como medidas que fomenten su ocupación, ya sea por cuenta propia o por cuenta ajena. Es por ello que resulta necesario reforzar la oferta e intensificar la financiación de aquellos programas de empleo y formación dirigidos a las personas desempleadas.

Por tanto, teniendo en cuenta la previsión de excedentes económicos en la convocatoria de ayudas a la formación de los trabajadores y trabajadoras afectados por un expediente de regulación de empleo que conlleve la suspensión del contrato de trabajo, y siendo conscientes de que si se espera al término de tal convocatoria y a su resolución final, que se sitúa

bidezkoa da hasieran deialdi horretarako esleitutako zenbateko ekonomikoa aldatzea bestelako helburuetarako aplika dadin, soberakin horiek liberatzeko eta horrela gastu publikoaren eraginkortasun-printzipioa errealitate egiteko. Hori da xedapen horren 1. artikuluaren edukia.

Era berean, 2. artikuluan 2010eko apirilaren 14ko Aginduaren II. eranskinean arautzen den laguntza-deialdiaren lehen oinarriaren testua aldatzen da, langileen parte-hartzea diruz lagungarria izan dadin prestakuntzaren izaera presentzialaren eskakizuna atzeraeraginarekin aplikatzea ekiditeko. Baldintza hori deialdi honetan txertatu zen aurreko deialdiarekiko berrikuntza modura; izan ere, gaur egungo testuari eusteak 2009ko ekitaldiari dagozkion prestakuntza-ekintza ez presentzialak gauzatu dituzten langileei laguntza lortzeko aukera ukatzea ekarriko luke. Langile horiek prestakuntza-ekintza horietan parte hartu zuten laguntzaren xede izango zirenaren uste eta konfiantzarekin, horrela jasotzen zelako 2009ko irailaren 19ko Aginduan araututako aurreko deialdian. Testu berrian, 2010eko ekitaldiaren deialdian onartutako planetatik eratorritako prestakuntza-ekintzetan eskatuko da dagokigun baldintza.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko apirilaren 14ko Aginduaren -hots, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz lan-kontratua eten zaien langileen prestakuntzarako 2010eko laguntza ekonomikoen deialdia egiten duen aginduaren- 1. artikuluaren laugarren paragrafoa aldatu da eta honako testu hau geratu da:

«4.– Agindu hori garatzera bideratuko baliabide ekonomikoak 1.750.000 euro izango dira guztira. Funts horiek Hobetuz Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioari transferituko zaizkio, enplegu-arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpenaren bitartez hilabete bakoitzean emango diren laguntza ekonomikoei dagokien zenbatekoan.

Funts horietatik gehienez 350.000 euro bideratuko dira II. eranskinean deitutako laguntzetara. Deialdi batean edo bestean aplikatu ezin daitekeen soberakinik sortzen bada, beste deialdiari dagozkion laguntzak finantzatzera bideratzeko aukera izango da.»

2. artikulua.– Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko apirilaren 14ko Aginduaren -Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz lan-kontratua

en el mes de diciembre, no podrán ya ser aplicados a otros programas para los que son tan necesarios, resulta procedente modificar la cifra del importe económico asignado inicialmente para su financiación, con el fin de liberarlos para su aplicación a otros objetivos, haciendo realidad el principio de eficacia del gasto público. Este es el contenido del artículo 1 de esta disposición.

Asimismo, en el artículo 2 se modifica la redacción de la base primera de la convocatoria de ayudas regulada en el anexo II de la Orden de 14 de abril de 2010, para eliminar la aplicación con carácter retroactivo del requisito del carácter presencial de la formación para que la participación de los trabajadores sea objeto de subvención, condición que fue introducida en esta convocatoria como novedad respecto de la anterior, puesto que mantener su redacción actual supondría negar el acceso a la ayuda a aquellos trabajadores que han podido cursar acciones formativas no presenciales derivadas de la convocatoria del ejercicio 2009, en la creencia y confianza de que su participación en las mismas iba a ser objeto de ayuda, puesto que así lo recogía la convocatoria anterior, regulada en la Orden de 19 de septiembre de 2009. Con la nueva redacción, la condición será exigible para aquellas acciones formativas derivadas de los planes aprobados en la convocatoria del ejercicio 2010.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se modifica el párrafo cuarto del artículo 1 de la Orden de 14 de abril de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan en 2010 ayudas económicas a la formación de los trabajadores y trabajadoras afectados por un expediente de regulación de empleo que conlleve la suspensión del contrato de trabajo, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con la siguiente redacción:

«4.– Los recursos económicos que se dedicarán al desarrollo de la presente Orden asciende a 1.750.000 euros. Estos fondos serán transferidos a Hobetuz, Fundación Vasca para la Formación Continua, en la cuantía correspondiente a las ayudas económicas concedidas cada mes mediante Resolución del Viceconsejero competente en materia de empleo.

De los fondos citados se dedicará un máximo de 350.000 euros a las ayudas convocadas en el anexo II. En el caso de que hubiese excedentes que no pudieran ser aplicados en cualquiera de las dos convocatorias, podrán destinarse a la financiación de las ayudas correspondientes a la otra.»

Artículo 2.– La base Primera de la convocatoria de ayudas regulada en el anexo II de la Orden de 14 de abril de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan en 2010 ayudas eco-

eten zaien langileen prestakuntzarako 2010eko laguntza ekonomikoen deialdia egiten duen aginduaren II. eranskinean araututako laguntza-deialdiaren lehen oinarria honako termino hauetan idatzita geratu da:

«Deialdi honen xedea da enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz lan-kontratua eten zaien eta Hobetuz-ek kudeatutako eskaintzako etengabeko prestakuntzarako laguntzen deialdi arruntean onartutako prestakuntza-planetan eskainitako prestakuntza-jardueretan aprobetxamenduz parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko langileentzako laguntza indibidualak arautzea, betiere 2010. ekitaldiari dagozkienak modalitate presentzialean ematen badira eta honako baldintza hauetako bat betetzen bada:

– Langilearen enpresak ez badu prestakuntza-planik garatzeko eta aurkezteko asmorik, betiere agindu honetako I. eranskinean araututako deialdiari jarraiki.

– Langilearen lan-kontratua eten denetik 30 igaro ostean, enpresak ez badu Hobetuzen langileak parte hartuko duen prestakuntza-planik aurkeztu, eta plan horretan ez badu agindu honetako I. eranskinean arautzen den deialdian aurreikusitako laguntzak hartzea eskatu.

– Agindu honetako I. eranskinean, 2009ko otsailaren 24ko Aginduan edo 2009ko irailaren 9ko Aginduaren I. eranskinean aurreikusitako baldintzak aintzat hartuta, langilearen enpresak prestakuntza-plana aurkeztu badu eta enpresak parte hartu duen edo parte hartuko duen prestakuntza-ordu kopuruak eragiten badu langilearentzako laguntza ekonomikoa 800 eurotik beherakoa izatea.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar diezaiokete interesdunek Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

nómicas a la formación de los trabajadores y trabajadoras afectados por un expediente de regulación de empleo que conlleve la suspensión del contrato de trabajo, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactada en los siguientes términos:

«Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las ayudas individuales a los trabajadores y trabajadoras de la Comunidad Autónoma del País Vasco afectados por el expediente de regulación de empleo que implique la suspensión del contrato de trabajo, que participen con aprovechamiento en actividades formativas ofertadas en los distintos planes de formación aprobados en la convocatoria ordinaria de ayudas a la formación continua de oferta gestionada por Hobetuz, que sean impartidas en modalidad presencial si corresponden a la convocatoria del ejercicio 2010, siempre y cuando concurra alguna de las siguientes condiciones:

– Que su empresa no tenga intención de desarrollar y presentar, conforme a la convocatoria regulada en el anexo I de esta Orden, un plan de formación.

– Que, transcurridos 30 días desde el inicio de la suspensión de su contrato de trabajo, la empresa no haya presentado ante Hobetuz un plan de formación que incluya su participación, solicitando acogerse a las ayudas previstas en la convocatoria regulada en el anexo I de esta Orden.

– Que, habiendo presentado su empresa plan de formación en los términos previstos en el anexo I de esta Orden, en la Orden de 24 de febrero de 2009 o en el anexo I de la Orden de 9 de septiembre de 2009, el número de horas de formación en las que ha participado o se prevé su participación, suponga una ayuda económica para el trabajador inferior a 800 euros.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.